

2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES

02 Kultura eta Hizkuntza Politika Cultura y Política Lingüística

HABE

EITB Taldea
Grupo EITB

Etxepare Euskal Institutua

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Euskal Herriko Gazte Orkestra
Joven Orquesta de Euskal Herria

Basque Team



2026

AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2026ko urtarrila / 1a, enero 2026

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Finantza Saila / Departamento Hacienda y Finanzas

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Aurkibidea / Índice :

02-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

02-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA	6
Sekzioaren eta programen memoriak	
Memorias de la Sección y de los Programas	7
Gastuen egoera-orria	
El Estado de Gastos	51
4511 Kultura/Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Lingüística	52
4512 Kirolak	
Deportes	56
4513 Kulturaren Sustapena	
Promoción de la Cultura	63
4514 Ondare Historiko Artistikoa	
Patrimonio Histórico Artístico	71
4515 Gizarte Hedabideak	
Medios de Comunicación Social	78
4711 Hizkuntza Politika	
Política Lingüística	80
5414 Berrikuntzarako Funtsa	
Fondo de Innovación	89
Sarrerren egoera-orria	
El Estado de Ingresos	90
4511 Kultura/Hizkuntza Politika. Egitura eta Laguntza	
Estructura y Apoyo de Cultura y Polít. Lingüística	91
4512 Kirolak	
Deportes	92
4513 Kulturaren Sustapena	
Promoción de la Cultura	93
4514 Ondare Historiko Artistikoa	
Patrimonio Histórico Artístico	94
Gastuen laburpenak	
Resúmenes de Gastos	95
Sarrerren laburpenak	
Resúmenes de Ingresos	102
ORGANISMO AUTONOMOAK	
ORGANISMOS AUTÓNOMOS	104
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE)	
Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos	105
ENTE, SOZIEDADE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK	
ENTES, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS	158
Euskal Irrati Telebista Taldea	
Grupo Euskal Irrati Telebista	159
Euskal Irrati Telebista	
Euskal Irrati Telebista	160
EiTB Media, S.A.U.	
EiTB Media, S.A.U.	181

EITB Taldea	
<i>Grupo EITB</i>	207
Etxepare Euskal Institutoa	
<i>Instituto Vasco Etxepare</i>	212
Euskadiko Orkestra SA	
<i>Orquesta de Euskadi, S.A.</i>	235
Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa	
<i>Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria</i>	254
BASQUE TEAM Fundazioa	
<i>Fundación BASQUE TEAM</i>	273

02-KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
02-CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Sekzioaren eta programen memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak arlo hauetan egituratzen du bere jardura: Kultura, Hizkuntza Politika, Jardura Fisikoa eta Kirola eta, azkenik, Gizarte Hedabideak.

Arlor horiek guztiek, beren politikak eta jardura administratiboetan genero ikuspegia eta euskararen normalkuntza txertatzen dute, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Saileko Planaren eta Euskara Planaren bitartez.

Jarraian esparruz esparru azaltzen da zeintzuk izango diren sailaren lan-ildo nagusiak 2026. ekitaldirako.

KULTURA

Kultura Sailburuordetza bi zuzendaritza nagusitan egituratuta dago: Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza eta Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritza. Lehenengoari dagokio Kultura-Ondarea Materiala eta Immateriala baloratzea, babestea, balioestea eta hedatzea, eta liburutegiei, fisiko eta digitalak, artxibategiei eta museoei laguntza ematea eta baita ere Jabetza Intelektuala eta Lege Gordailua kudeatzea. Bigarrenaren eginkizunak, berriz, honako hauek dira: gure herriko kulturaren eta arteen adierazpideen sorkuntza, ekoizpena eta zabalkundea bultzatzea (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, literatura-argitalpenak, etab.), eta Kultura eta Sormen Industrien politikak.

Kultura gure herriaren taupada da. Horrek batzen gaitu, definitzen gaitu eta askotariko komunitatetat hartzen gaitu. Euskadin, kultura ez da gehigarri bat: herri gisa dugun proiektuaren zutabe nagusia da, eta pertsonak konektatzeko, sareak sortzeko eta gure pertenezia-zentzua indartzeko gai den motorra.

Kultura adierazpen artistikoa baino askoz gehiago da: kohesio sozialaren, berrikuntzaren, hezkuntzaren, ongizatearen eta elkarriketaren motorra da. Kontzertu, erakusketa edo euskarazko emanaldi bakoitza aukera bat da pertsona anitzek elkarrekin topo egiteko, hitz egiteko eta proiektu komun baten parte sentitzeko: Euskadi Berria.

Gure kultura babestuz, sustatuz eta proiektatuz, gure hizkuntza, gure tradizioak eta elkarrekin etorkizuna irudikatzeko gaitasuna indartzen ari gara, mundura irekia eta sakonki euskalduna.

INTRODUCCIÓN

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se estructura en las siguientes áreas de actuación: Cultura, Política Lingüística, Actividad Física y Deporte y, por último, Medios de Comunicación Social.

Cada una de estas áreas desarrolla sus políticas y actividad administrativa integrando de forma transversal la perspectiva de género así como la normalización del uso del euskera, a través del Plan Departamental de Igualdad de Mujeres y Hombres y del Plan de Euskera.

A continuación se explica, área por área, cuáles serán las principales líneas de trabajo del Departamento de cara al ejercicio 2026.

CULTURA

La Viceconsejería de Cultura está estructurada en dos direcciones generales: la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal y la Dirección de Promoción Cultural, Industrias Culturales y Creativas. A la primera, le corresponde la valoración, protección, puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Material e Inmaterial, y el apoyo a las bibliotecas, físicas y digitales, archivos y museos, además de la gestión de la Propiedad Intelectual y Depósito Legal. A la segunda, le corresponde el apoyo a la creación, la producción y la difusión de las diferentes expresiones de la cultura y de las artes en nuestro país (música, artes escénicas, audiovisual, artes plásticas, edición literaria, etc.), así como las políticas de Industrias Culturales y Creativas.

La cultura es el latido de nuestro pueblo. Es lo que nos une, nos define y nos permite reconocernos como comunidad diversa. En Euskadi, la cultura no es un añadido: es un pilar central de nuestro proyecto como país y un motor capaz de conectar a las personas, generar redes y fortalecer nuestro sentido de pertenencia.

La cultura es mucho más que expresión artística: es motor de cohesión social, innovación, educación, bienestar y diálogo. Cada concierto, exposición o representación en euskera es una oportunidad para que personas diversas se encuentren, dialoguen y se sientan parte de un proyecto común: Euskadi Berria.

Protegiendo, fomentando y proyectando nuestra cultura, estamos reforzando nuestra lengua, nuestras tradiciones y nuestra capacidad de imaginar un futuro juntos, abierto al mundo y profundamente vasco.

XIII. legegintzaldirako Gobernu Programak kulturaren sustapenarekin hartutako 4 konpromisoak jasotzen ditu: 46. konpromisoa; erakundeen arteko lankidetzan sakondu eta gobernantza onean; 47. konpromisoa; Euskadiko kultura-sorkuntza eta ekoizpena bultzatzea, kulturaren euskal sortzaile, artista eta profesionalak; 48. konpromisoa; Euskadiko kultura-eskaintza indartzea, gizartera hurbilduz egitasmo estrategikoen bitartez; eta 50 konpromisoa; kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzea.

Kultura Sustatzeko eta Kultura eta Sormen Industrietako Zuzendaritzak kultur politiken konplexutasuna lau helburutara eramatea proposatu du, XIII. legegintzaldiko Gobernu Programarekin, 2022-2028 Kultura Planarekin eta Kultura Sailburuordetzaren 2030 agendarekin bat etorritz:

1. Kultura gobernantzaren eremu guztietako erantzukidetasunean sakontzea.
2. Euskal kulturaren sorkuntza eta ekoizpena eta gizartean kultura hedatzeko sistema publikoak indartzea.
3. Euskal kulturaren ikusgarritasuna handitzea.
4. Kultura eta Sormen Industria sustatzea, berrikuntzaren sustapenaren bitartez, eta eraldaketa digitala sustatzea.

Horri guztiari kultura-eragileekin nahiz kultura-politikaren arloan gurekin batera erantzukizunak partekatzen dituzten gainerako erakundeekin partekatutako gobernantza batetik bakarrik heldu ahal izango zaio. Erakunde-arteko HAKOBA foroa sakonduko dugu, Kultura Auzolanean planarekin jarraituko dugu, eta Etxepare Institutuak gure kultura-industria nazioartekotzen lagunduko dute.

Halaber, 2026ko ekitaldian Kulturaren Euskal Behatokia eta Kulturklik Euskal Kulturaren Gune Interaktiboa indartuko ditugu.

Kultura Ondarearen ikuspegitik, Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzatik, batez ere garrantzi handiko sei programa sustatuko dira: Euskal Kultura Ondarea, Materiala eta Immateriala, balioestea eta hedatzea; Museoen Euskal Sistema garatzea; Dokumentu Ondarea kudeatzea eta Euskadiko Artxiboen Sistema garatzea; Euskadiko Liburutegien Sistema garatzea; Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala, euskal kulturaren alderdi guztietara sartzeko atari eta gordailu bakar gisa; eta, azkenik, zuzendaritzari aholkularitza juridikoa ematea eta jabetza intelektualaren arloan Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatutako zerbitzuak eta Lege Gordailua kudeatzea.

Euskadiko Kultura Ondarearekin hartutako konpromisoari dagokionez, arreta berezia eskainiko zaio babes juridikoari, eta aitorten bateratuak sustatuko dira. Inazio Bidea eta Itsasertzeko Santiago Bidea seinalatzeko, babesteko eta dinamizatzeko ekintzekin jarraituko dugu, eta kultura-ondarea katalogatzeko eta ikertzeko lanak sustatuko dira eta inbentarioak eguneratuko dira.

El Programa de Gobierno para la XIII legislatura recoge los 4 compromisos con la promoción de la cultura: compromiso 46; profundizar en la colaboración interinstitucional y en la buena gobernanza; compromiso 47; impulsar la creación y la producción cultural en Euskadi, apoyando creadores/as, artistas y profesionales vascos/as de la cultura; compromiso 48; fortalecer la oferta cultural de Euskadi, acercándola a la sociedad impulsando proyectos estratégicos; y compromiso 50; impulsar la innovación y la digitalización en la cultura.

Desde la Dirección de Promoción Cultural e Industrias Culturales y Creativas se propone trasladar la complejidad de las políticas culturales a cuatro objetivos en coherencia con el Programa de Gobierno de la XIII Legislatura y el Plan de Cultura 2022-2028 y la Agenda 2030 de la Viceconsejería de Cultura:

1. Profundizar en la corresponsabilidad en todos los ámbitos de la gobernanza cultural.
2. Reforzar la creación y producción de la cultura vasca y reforzar los sistemas públicos para difundir la cultura en la sociedad.
3. Aumentar la visibilidad de la cultura vasca.
4. Profundizar en el sector de las industrias culturales y creativas, a través de la promoción de la innovación y promover la transformación digital.

Todo esto sólo se puede abordar desde una gobernanza compartida, tanto con los agentes culturales como con las demás instituciones, con las que compartimos responsabilidades en políticas culturales. Profundizaremos en el foro interinstitucional HAKOBA, continuaremos con Kultura Auzolanean, mientras que el Instituto Etxepare y las asociaciones sectoriales servirán para facilitar la internacionalización de nuestras industrias culturales.

Asimismo, durante el ejercicio 2026 seguiremos reforzando el papel del Observatorio Vasco de la Cultura y Kulturklik, Espacio Interactivo de la Cultura Vasca.

Desde el punto de vista del Patrimonio Cultural, desde la Dirección de Patrimonio Cultural, Propiedad Intelectual y Depósito Legal, se impulsarán fundamentalmente seis grandes programas: la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco, Material e Inmaterial; el desarrollo del Sistema Vasco de Museos; la gestión del Patrimonio Documental y el desarrollo del Sistema de Archivos de Euskadi; el desarrollo del Sistema Vasco de Bibliotecas; la Biblioteca Digital de la Cultura Vasca como repositorio único y portal de acceso a todos los aspectos de la cultura vasca; y, finalmente, el asesoramiento jurídico a la Dirección y la gestión de los servicios transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de propiedad intelectual y Depósito Legal.

En lo que al compromiso con el Patrimonio Cultural Vasco se refiere, se prestará especial atención a la protección jurídica, potenciando declaraciones integrales. Se proseguirá con las acciones de señalización, protección y dinamización del Camino de Santiago de la costa y el Camino Ignaciano y se actualizarán los inventarios y se impulsarán los trabajos de investigación sobre patrimonio cultural.

Ondare immaterialaren kontserbazioan eta sendotzean lan egiten jarraituko da, eta industria-ondarearen eta unti eta itsas ondarearen pertzepzioan sakonduko da.

Halaber, Euskal kulturaren espazio digitala sendotzeko lan egingo da, politika publikoak berrituz. Legealdi honetan, kulturaren berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzeko konpromisoa betetzeko, Euskariana indartuko dugu eta beste erakundeetako biltegiekin koordinazioa indartuko dugu, digitalizazio politika bateratuak bultzatuz.

Gainera, jarraitu egingo dugu irakurketa publiko digitalaren plataforma (eLiburutegia) zabaltzen eta garatzen, bai eta saileko atari digitaletako irisgarritasuna hobetzen ere.

MUSEOEN ZENTROA dela eta, parte hartuko dugu Guggenheim Bilbao Museoa, Arte Ederren Bilboko Museoa, Arabako Artium Museoa, eta Cristóbal Balenciaga Museoa. Halaber, Donostiako San Telmo Museoarekin eta Euskadi mailan interes orokorra duten bestelako museoekin lan egingo da.

Mantendu egingo da 2026 urtean zehar Euskadiko museoek egiten dituzten ekintzak garatu eta zabaltzeko asmoz urtero ateratzen den dirulaguntza deialdia. Era berean, bildumen integrazioa bultzatuko da. Honen helburua da museo ez diren erakunde eta fundazioen ondare historiko eta artistikoa balioan jartzea eta publiko orokorrarekin partekatzea. 2026an MUSEOTIK plataformaren garapenarekin jarraituko dugu.

Azkenik, Artxibo historiko, publiko eta pribatuak funtsak babestu, berreskuratu, antolatu eta digitalizatzea landuko da, funts horiek zabaltzeko azken helburuarekin.

HIZKUNTZA POLITIKA

Euskara azken hamarkadetan egindako lan kolektiboari esker biziberritu eta indartu egin da. Herri honek erakutsi du gauza handiak egiteko gai dela, eta datuek argi uzten dute: azken 40 urteetan bikoiztu egin da euskaraz hitz egiten dutenen kopurua. Bereziki gazteen artean gertatu da jauzi handia, eta gaur egun euskarak presentzia du esparru guztietan: eskolan, unibertsitatean, hedabideetan, kulturen eta teknologian.

Baina errealitate berriek (globalizazioak, digitalizazioak, gizartearen aniztasun geroz eta handiagoak) erronka berriak dakartzate. Euskarak jauzi kualitatiboa behar du, gaur arteko arrakastak kontuan hartuta, baina paradigma berriekin eta modu berritzaileekin.

ZENTZU HONETAN, EUSKARAREN ERABILERAN JAUZI KUALITATIBOA EMATEA LORTU nahi dugu; EUSKARARI ESTATUS EMOZIONAL BERRIA EMATEA.

Euskararen biziberritzeak herritar eleaniztunez osatutako gizarte elebidun geroz eta orekatuago baterantz hurbildu behar gaitu. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), horretan ahalegintzen ari da, adostasun politiko eta sozial zabalena bilatuz, horren eskutik baita gizartearen onespina eta herritarren atxikimendua.

Asimismo, se seguirá trabajando en la conservación y consolidación del patrimonio inmaterial y se ahondará en la percepción del patrimonio industrial, así como en el patrimonio marítimo y naval.

Se trabajará en consolidar el espacio digital de la cultura vasca a través de innovación de políticas. Durante esta legislatura, para cumplir con el compromiso de impulsar la innovación y la digitalización de la cultura, reforzaremos Euskariana e incrementaremos la coordinación con los depósitos digitales de otras instituciones, desarrollando políticas de digitalización consensuadas.

Además se continuará ampliando y desarrollando la plataforma de lectura pública digital (eLiburutegia), así como la mejora en la accesibilidad de los diversos portales digitales del Departamento.

En lo que respecta al CENTRO DE MUSEOS, se participará en el Museo Guggenheim Bilbao, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Museo Artium de Álava y Museo Cristóbal Balenciaga. Asimismo, se colaborará con el Museo San Telmo de Donostia-San Sebastián y con otros museos de interés general a nivel de Euskadi.

Se mantendrá durante el año 2026 el programa anual de subvenciones destinadas al desarrollo y difusión de las actividades promovidas por los museos. Y se impulsará el registro de colecciones, con el fin de poner en valor y compartir con el público general el patrimonio histórico y artístico de instituciones y fundaciones no museísticas. En el 2026 continuaremos con el desarrollo de la plataforma MUSEOTIK.

Por último, se trabajará en los ámbitos de la tutela, la recuperación, la organización y la digitalización de fondos de archivos históricos, públicos y privados, con el fin último de su difusión.

POLÍTICA LINGÜÍSTICA

El euskera se ha revitalizado y fortalecido gracias al trabajo colectivo realizado en las últimas décadas. Este país ha demostrado que es capaz de hacer grandes cosas, y los datos lo dejan claro: en los últimos 40 años se ha duplicado el número de hablantes de euskera. El gran salto se ha producido especialmente entre los jóvenes, y hoy en día el euskera tiene presencia en todos los ámbitos: la escuela, la universidad, los medios de comunicación, la cultura y la tecnología.

Pero las nuevas realidades (globalización, digitalización, diversidad creciente de la sociedad) plantean nuevos retos. El euskera necesita un salto cualitativo, teniendo en cuenta los éxitos obtenidos hasta hoy, pero con nuevos paradigmas y maneras innovadoras.

EN ESTE SENTIDO, PRETENDEMOS DAR UN SALTO CUALITATIVO EN EL USO DEL EUSKERA; DOTAR AL EUSKERA DE UN NUEVO ESTATUS EMOCIONAL.

La revitalización del euskera debe acercarnos a una sociedad bilingüe cada vez más equilibrada formada por una ciudadanía plurilingüe. La Viceconsejería de Política Lingüística (VPL) se está esforzando en ello, buscando el más amplio consenso político y social, ya que de su mano viene el reconocimiento social y la adhesión de la ciudadanía.

XIII. legegintzaldirako 2024-2028 Gobernu Programan jasota daude euskararekiko 3 konpromiso nagusiak: 43. konpromisoa: Euskararen ezagutza areagotzea eta ingurune guztietan euskararen erabilera sustatzea; 44. konpromisoa: Hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-bizikidetzak normalizatu baterako bidean aurrera egitea, eta 45. konpromisoa: Euskara suspertze bidean dauden eremuetara eta eremu berrietara zabaltzeko estrategiak eta prozesuak bultzatzea.

Legegintzaldi honetan Euskararen Agenda Estrategikoa dokumentuaren bidez euskarari berariaz dagozkion politikak bideratzen eta zeharkakotasuna bermatzen ahaleginduko da HPS, bai administrazioaren eremu guztietan, baita gizartearen ere. Oinarri nagusi horietan finkatzen ditugu, beraz.

2026ko ekitaldian garatuko ditugun hizkuntza politikaren arloko lehentasunak:

1. Euskararen ezagutza areagotzeko bidean jarraitzea.
2. Euskararen erabilera areagotzeko bidean jarraitzea, bereziki, eremu hauetan: familia transmisioa eta hizkuntza sozializazioa, aisialdia eta kirola, ingurune digitala eta hizkuntza teknologiak, hedabideak, EAEko sektore publikoa, eremu sozioekonomiko pribatua, gizarte aktibazioa.
3. Herritarren hizkuntza eskubideak babesten jarraitzea.
4. Erakunde arteko lankidetzak indartzen jarraitzea.
5. Zeharkakoak diren ikerketa askotarikoak garatu eta gauzatzea (Euskararen Adierazle Sistema, eta arloko ikerketak, etab.).
6. Desarrollar y cuando sea oportuno crear prácticas que contribuyan a la promoción y revitalización del euskera (AROA, marco estratégico para la revitalización del euskera y el empoderamiento de las personas vascohablantes, Agenda Estratégica del Euskera, informes de las comisiones del Consejo Asesor del Euskera, etc.).

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren 2/2023 Legearekin bat etorritik, botere publikoek, beren eskumenen esparruan, pertsona guztiek kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten oinarriko eskubidea bermatzera bideratutako politika onartuko dute, interes publikoko gizarte-jarduerak baita, eta pertsonen prestakuntza eta garapen integrala, bizi-kalitatea hobetzea eta norbanakoaren eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzen baitu.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak aktiboki lan egingo du 2024-2028 legegintzaldian jarduera fisiko osasungarria eta goi-mailako kirola sustatzeko.

Izan ere, Euskadin kirola eta jarduera fisikoa lehiaketa baino askoz gehiago dira: komunitatea eraikitzeko, gure nortasuna indartzeko eta gure osasun kolektiboa zaintzeko tresnak dira.

El Programa de Gobierno 2024-2028 para la XIII legislatura recoge los 3 principales compromisos con el euskera: Compromiso 43: Aumentar el conocimiento del euskera y fomentar su uso en todos los entornos; compromiso 44: Avanzar hacia la garantía de los derechos lingüísticos y hacia una convivencia lingüística normalizada; y compromiso 45: Impulsar estrategias y procesos para extender el euskera a ámbitos emergentes y nuevos.

A lo largo de la presente legislatura, mediante la Agenda Estratégica del Euskera, la VPL tratará de orientar las políticas específicas del euskera y garantizar su transversalidad, tanto en todos los ámbitos de la administración como en la sociedad.

En estas bases generales fijamos, por tanto, las prioridades en materia de política lingüística que desarrollaremos en el ejercicio 2026:

1. Seguir avanzando hacia un mayor conocimiento del euskera.
2. Seguir avanzando en el incremento del uso del euskera, especialmente en los siguientes ámbitos: transmisión familiar y socialización lingüística, ocio y deporte, entorno digital y tecnologías lingüísticas, medios de comunicación, sector público de la CAE, ámbito socioeconómico privado, activación social.
3. Seguir protegiendo los derechos lingüísticos de la ciudadanía.
4. Seguir reforzando la cooperación interinstitucional.
5. Llevar a cabo investigaciones diversas de carácter transversal (Sistema de Indicadores del Euskera, e investigaciones sectoriales, etc.).
6. Euskara sustatzeko eta biziberritzeko lagungarri izango diren jardunbideak garatzea eta dagokionean, sortzea (AROA, euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoa, Euskararen Agenda Estrategikoa, Euskararen Aholku Batzordearen batzordeetako txostenak, etab.).

ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE

De acuerdo con la Ley 2/2023 de la actividad física y el deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, adoptarán una política dirigida a garantizar el derecho fundamental de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

Desde la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno vasco se trabajará activamente durante la legislatura 2024-2028 en promocionar la actividad física saludable y fomentar el deporte de alto nivel.

Y es que en Euskadi, el deporte y la actividad física son mucho más que competición: son herramientas para construir comunidad, fortalecer nuestra identidad y cuidar de nuestra salud colectiva.

Kirolean inbertitzen dugu badakigulako gure osasuna eta ongizatea zaintzea gure gizartea zaintzea dela. Kirola egiteak gure bizi-kalitatea hobetzen du, enplegua sortzen du, ekonomia bultzatzen du eta balio partekatuak sustatzen ditu: ahalegina, elkartasuna, errespetua, lankidetzeta eta harrotasun kolektiboa.

Era berean, gure goi mailako atletak altxor kolektiboa dira. Euskadi munduan ordezkatzeko dute, eta gure nortasuna eta balioak eramaten dituzte berekin, belaunaldi guztiak inspiratuz. Aldi berean, gure kirol-tradizioek (pilotak edo arraunak, esaterako) gure historiarekin lotzen gaituzte eta gure sustraiak bizirik mantentzen laguntzen digute, tradizioa eta berrikuntza uztartuz.

Ilido horretan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak lau ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu bere lehentasunak, helburuak eta ekintzak. Honako hauek dira:

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.
2. Euskadi aktiboa sustatu. Euskal herritarren artean jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasuntsuak bultzatuko dira, Euskadi Europako gizarte aktiboaren artean kokatuz.
3. Euskal kirola berdintasunez. Helburua berdintasun erreala sustatzea da generoaren ikuspuntutik, dibertsitate funtzional bat duten pertsonen aukeren ikuspegitik eta hizkuntza-berdintasunari dagokionez.
4. Kirola Euskadiren ikur. Kirola eta kirol-jardunarekin lotutako balioak Euskadiren identifikazio-ezaugarria izango dira, gure herrian bertan eta Euskadi-Basque Country estrategiaren baitan.

EITB

EITBri dagokienaz, aipatu behar da euskal gizartearen zerbitzuan dagoen ente publikoa dela, helburu hauek dituen: euskal gizartea informatzea, herritarrek politikan, gizartearen eta kulturen parte har dezaten bultzatzea, eta euskal kultura eta euskararen normalizazioa sustatzea. Era berean, EITBren helburu dira: gizartea eraldatzeko eragile izatea, herritarrei eskaintzea irratia eta telebista programazio erakargarria eta kalitatezkoa, baita plataforma digitaletan ere, gure kirolean erreferente izan, euskal ikus-entzunezko ekosistema garatzen laguntzea, teknologia berrietara egokitzea eta azpiegiturretan inbertitzea.

Eusko Jaurlaritzak eta EITBek 2022ko martxoaren 8an sinatu zuten programa-kontratua, 2022-2025 aldirako. Programa-kontratu horrek ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu publikoaren markoa, eta zerbitzu hori emateko EITBek hartzen zituen konpromisoak ezarri zituen. Era berean, Eusko Jaurlaritzak konpromiso ekonomikoak hartu zituen, EITBek zerbitzu publiko hori egoki eskaini zezan.

Aipatutako programa-kontratua 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta programa-kontratu berria indarrean jarri arte luzatu ahal izango da, 9. klausulan xedatutakoaren arabera.

Invertimos en deporte porque sabemos que cuidar de nuestra salud y bienestar es cuidar de nuestra sociedad. La práctica deportiva mejora nuestra calidad de vida, genera empleo, impulsa la economía y fomenta valores compartidos: esfuerzo, solidaridad, respeto, colaboración y orgullo colectivo.

Asimismo, nuestros atletas de alto nivel son un tesoro colectivo. Representan a Euskadi en el mundo y llevan consigo nuestra identidad y valores, inspirando a todas las generaciones. Al mismo tiempo, nuestras tradiciones deportivas (como la pelota o el remo) nos conectan con nuestra historia y nos ayudan a mantener vivas nuestras raíces, combinando tradición e innovación.

En este sentido, la Dirección de Actividad Física y Deporte ha articulado sus prioridades, objetivos y acciones en torno a cuatro grandes ejes. Son los siguientes:

1. Reactivar el sector de la actividad física y el deporte, adecuando el sistema deportivo de Euskadi a los retos de futuro.
2. Promover una Euskadi activa. Se promocionará la actividad física y los hábitos de vida saludables entre la ciudadanía vasca, colocando a Euskadi como una de las sociedades más activas de Europa.
3. Deporte vasco en igualdad. El objetivo es promover la igualdad real desde el punto de vista del género, de las oportunidades de las personas con discapacidad y diversidad funcional y de la igualdad lingüística.
4. El deporte como símbolo de Euskadi. El deporte y los valores relacionados con la práctica deportiva serán la seña de identidad de Euskadi, en nuestro propio país y dentro de la estrategia Euskadi-Basque Country.

EITB

En lo que a EITB se refiere, cabe mencionar que se trata de un ente público al servicio de la sociedad vasca cuyos objetivos fundamentales son: informar a la sociedad vasca, promover la participación política, social y cultural de la ciudadanía y fomentar la cultura vasca y la normalización del euskera. Asimismo, otros de los objetivos de EITB son: ser agente transformador de la sociedad, ofrecer a la ciudadanía una programación de radio y televisión atractiva y de calidad, así como en sus plataformas digitales, ser referente en nuestros deportes, contribuir al desarrollo del ecosistema audiovisual vasco y adaptarse a las nuevas tecnologías e invertir en las infraestructuras.

El Gobierno Vasco y EITB firmaron el 8 de marzo del 2022 el contrato programa para el periodo 2022-2025, el cual estableció el marco y los compromisos para el desempeño del servicio público de comunicación audiovisual que debe prestar el ente público a la sociedad vasca, así como los compromisos económicos que el Gobierno adoptaba para que ese servicio público pueda prestarse adecuadamente.

El mencionado contrato programa tiene vigencia hasta al 31 de diciembre de 2025, pudiendo prorrogarse hasta la entrada en vigor del nuevo contrato programa, conforme a lo dispuesto en la cláusula 9 del mismo.

Beraz, EITBren 2026rako aurrekontuak onartzen den programa-kontratu berrian jasotako esparruari eta konpromisoei erantzun die, edo, halakorik ezean, 2022-2025 aldiari dagokion programa-kontratuari, hura luzatuz gero.

Por lo tanto, el presupuesto de EITB para 2026 responderá al marco y a los compromisos recogidos en el nuevo contrato programa que se apruebe o, en su defecto, al contrato programa correspondiente al periodo 2022-2025 en caso de prorrogarse éste.

PROGRAMA

4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA. EGITURA ETA LAGUNTZA

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN
ZUZENDARITZA
ZERBITZU ZUZENDARITZA

PROGRAMA

4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE
COMUNICACIÓN SOCIAL
DIRECCIÓN DE SERVICIOS

MEMORIA

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza sailaren titularrari zuzenean laguntzeko organoa da. Zuzendaritza saileko sailburuordetzak elkarren artean behar bezala koordinatzeaz arduratzen da, sailaren eta beste administrazio batzuen arteko harremanak bideratzen ditu eta sailak Arartekoarekin eta Legebiltzarrarekin duen komunikazioaren arduraduna da. Bestalde, zuzendaritza honek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzeko gaikuntza-tituluak emateko prozedurak era administratiboan gauzatzeko eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaileek hitzartutako baldintzetan emango dutela egiaztatzeko eskuduntza ere badu.

Zerbitzu Zuzendaritzari sailaren goi-zuzendaritza betetzea dagokio, hots, sailaren jarduerak planifikatzea, zuzentzea eta koordinatzea. Era berean, saileko zeharkako atala da eta honako helburu hauek ditu: laguntza ematea organo kudeatzaileei (gainerako zuzendaritzak) arlo ekonomikoan, juridikoan, informatikoan eta langileen atalean; euskara-plana bultzatzea eta koordinatzea; aholkularitza eta laguntza ematea genero-ikuspegia txertatzeko; eta saileko estatistika lantzea. Horretarako, zuzendaritza honen egituraketan biltzen dira: lau zerbitzu, euskara eta berdintasunerako unitateak, eta organo estatistikoa.

La Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social es el órgano de apoyo directo a la persona titular del Departamento. La Dirección vela por la adecuada coordinación entre las Viceconsejerías del Departamento, canaliza las relaciones del Departamento con otras administraciones y es la responsable de la interlocución del Departamento con el Ararteko y con el Parlamento. Por otra parte, corresponde también a esta Dirección la ejecución administrativa de los procedimientos para la concesión de títulos habilitantes para la prestación de servicios comunicación audiovisual (radio y televisión), y la verificación del cumplimiento de las condiciones esenciales del servicio por parte de las entidades prestadoras de servicios de comunicación audiovisual.

La Dirección de Servicios ejerce la alta dirección del Departamento y es a quien corresponde planificar, dirigir y coordinar las actividades del mismo. Es igualmente la sección transversal del Departamento y sus objetivos son: prestar apoyo a los órganos de gestión (resto de Direcciones) en las áreas económica, jurídica, informática y de personal; impulsar y coordinar el plan de euskera; asesorar y asistir en la incorporación de la perspectiva de género; y elaborar la estadística departamental. Para ello, la Dirección se estructura orgánicamente en cuatro servicios, las unidades de euskera e igualdad, y el órgano estadístico.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. SAILAREN TITULARRAREN KANPO HARREMANAK SENDOTZEA ETA KUDEATZEA 1. Eusko Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko sailaren harremanak bideratzea.		1. FORTALECER Y GESTIONAR LAS RELACIONES EXTERNAS DE LA PERSONA TITULAR DEL DEPARTAMENTO 1. Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y el Ararteko.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
2. Herritarrek informatzea eta, horretarako dauden hedabideen bidez, haien eskaerei erantzuna ematea. 2. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-ZERBITZUAK EMATEKO GAIKUNTZA-TITULUAK EBAZTEA 1. Marko juridikoa garatzea. 2. Gaikuntza-tituluak gauzatzea. 3. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak ematen dituzten pertsona eta erakundeek EAEko erregistroa garatzea. 4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren (1/2023 Legegintzako dekretuak onartutakoa) betetzea sustatzea; ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu emaileen eta hedabideen artean (bereizkeria eragiten ez duten edukiak, ordezkartza orekatua, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua, etab.). 3. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA 1. Arlo Ekonomikoa: sailaren aurrekontu aurreproiektua prestatzea (zuzendaritzekin elkarlanean), aurrekontu-exekuzioaren jarraipena egitea, eta gastuei eta sarrerei dagozkien kontabilitate agiriak izapidetza zentralizatzea. 2. Arlo Juridikoa: aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen ditu (hala badagokio, txosten juridikoak eginez); administrazio-bidean errekursoak ebatzea aztertzen eta proposatzen du; ondare-erantzukizuneko espedienteak izapidetzen ditu, bai eta izaera orokorreko arau-xedapenak eta kontratu txikitat hartzen ez diren administrazio-kontratuak onartzeko espedienteak ere; Sailaren datu pertsonalak babesteko tratamendu-jarduerak kudeatzen ditu, arlo informatikoarekin batera; espedienteak Gobernu Idazkaritzara igortzen ditu eta izenpetutako hitzarmenak erregistratu; eta, auzietan, espedienteak dagokion organo judizialera bidaltzen direla gainbegiratzen du, eta Auzibide Zuzendaritzarekiko harremanak kudeatzen ditu. 3. Arlo Informatikoa: ekipo informatikoak, informazio-sistemak, web-atariak eta prozeduren digitalizazioa kudeatu eta koordinatzea, eta fitxategien segurtasuna eta kalitate-sistemak ere bai; Sailaren datu pertsonalak babesteko tratamendu-jarduerak kudeatzen ditu, arlo juridikoarekin batera. 4. Langileen Atala: Saileko giza baliabideak kudeatzea eta langileak prestatzeko planak ezarri eta koordinatzea.		2. Informar a la ciudadanía y dar respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados para tal fin. 2. RESOLVER LOS TÍTULOS HABILITANTES PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL 1. Desarrollar el marco jurídico. 2. Formalizar los títulos habilitantes. 3. Desarrollar el Registro de personas y entidades prestadoras del servicio de comunicación audiovisual de la CAE. 4. Promover el cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres entre los prestadores del servicio de comunicación audiovisual y medios (contenidos no discriminatorios, representación equilibrada, tratamiento de la violencia contra las mujeres, etc.). 3. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO 1. Área Económica: elabora el anteproyecto del presupuesto del Departamento (de forma coordinada con las diferentes Direcciones), realiza el seguimiento de la ejecución presupuestaria, y centraliza la tramitación de los documentos contables de gasto e ingreso. 2. Área Jurídica: realiza funciones de asesoramiento jurídico (emitiendo, si procede, informes jurídicos); analiza y propone la resolución de recursos en vía administrativa; tramita expedientes de responsabilidad patrimonial, así como expedientes para la aprobación de disposiciones normativas de carácter general y los de contratos administrativos que no tengan la consideración de contratos menores; gestiona las actividades de tratamiento de protección de datos personales del Departamento, junto con el área informática; remite expedientes a Secretaría de Gobierno y registra los convenio suscritos; y, en la función contenciosa, supervisa la remisión de los expedientes al órgano judicial que corresponda, y gestiona las relaciones con la Dirección de lo Contencioso. 3. Área Informática: gestiona y coordina los equipos informáticos, sistemas de información, portales web y la digitalización de los procedimientos, también la seguridad de los ficheros y los sistemas de calidad; gestiona las actividades de tratamiento de protección de datos personales del Departamento, junto con el área jurídica. 4. Área de Personal: gestiona los recursos humanos del Departamento y, establece y coordina los planes de formación del personal.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
4. EUSKARA-PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA) 1. Euskararen erabilera areagotzeko neurriak gauzatzea. Herri-erakundeekin eta erakunde pribatuekin. Barne-harremanetan eta jendaurreko ekitaldietan. Herritarrekiko harremanetan.	 10 10 10	4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA) 1. Implementar medidas destinadas al incremento del uso del euskera. En las relaciones con las instituciones públicas y las instituciones privadas. En las relaciones internas e intervenciones públicas. En las relaciones con la ciudadanía.
5. SAILARI AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA EMATEA GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO 1. Saileko jarduera administratiboan eta politika sektorialetan genero-ikuspegia txertatzen sustatzea. Sailaren legegintzaldiko berdintasun-plana. Bilerak berdintasunerako talde teknikoekin eta politikoekin, Sailaren berdintasun planari jarraipena egiteko. Prestakuntza- edo sentsibilizazio-ekintzak.	 1 3 4	5. ASESORAR Y ASISTIR AL DEPARTAMENTO EN LA INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO 1. Promover la incorporación de la perspectiva de género en la actuación administrativa del Departamento y en sus políticas sectoriales. Plan de igualdad de legislatura del Departamento. Reuniones con los grupos técnicos y políticos de igualdad para el seguimiento del plan de igualdad departamental. Acciones formativas o de sensibilización.
6. SAILEKO ESTATISTIKA LANTZEA 1. Saileko estatistika lantzea. Estatistika eragiketak (EAEko Estatistika Ofizialeko Programan jasotakoak). Txosten teknikoak. Informazio-eskaerak estatistika institutuei.	 13 9 4	6. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL 1. Elaborar la estadística departamental. Operaciones estadísticas (incluidas en el Programa de Estadística Oficial de la CAE). Informes técnicos. Peticiónes de información a institutos de estadística.

PROGRAMA

4512 KIROLAK

PROGRAMA

4512 DEPORTES

ARDURADUNA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
 JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN
 ZUZENDARITZA

RESPONSABLE

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
 DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA
 Y DEPORTE

MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko 2/2023 Legearekin bat etorritik, botere publikoek, beren eskumenen esparruan, pertsona guztiek kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten oinarritzko eskubidea bermatzera bideratutako politika onartuko dute, interes publikoko gizarte-jarduera baita, eta pertsonen prestakuntza eta garapen integrala, bizi-kalitatea hobetzea eta norbanakoaren eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzen baitu.

Jarduera fisikoa eta kirola oso lagungarriak dira gazteen ikaskuntza-eta prestakuntza-prozesuan hezteko. Jarduera fisikoa eta kirola egiten duen orok badaki diziplina eta eguneroko lana zer diren, baita taldean jokatzeko ardura lantzea ere. Gainera, nork bere burua zaintzeko ohiturak ikasten dira kirolaren bitartez.

Jarduera fisikoa eta kirola oso tresna aproposak dira gizarte integrazioarako. Horien bitartez, komunitate baten parte izateko aukera errazten zaie bertakoak ez diren pertsonen, eta integrazio sarrera bikaina izan daiteke atzeretik gure herrira etorritako hainbat pertsonarentzako.

Jarduera fisikoa eta kirola gure bizi-kalitatearen eta osasunaren oinarria dira, ezinbestekoak baitira eremu horietan onurak lortzeko. Egungo sozietatean eta, batez ere, ditugun abantaila teknologikoek badute alde kaltegarri bat: jarduera fisiko eza eta sedentarismoa.

Jendarte aktiboa, hau da, jarduera fisikoa egiten duen gizarte, sedentarioa ez dena, ezinbestekoa da gure ongizate mailari eusteko. Sozietate alaiagoa, emankorragoa eta osasuntsuagoa ekarriko du, eta, nola ez, jasangarriago egingo ditu gure ongizate-mailak osasun arloan dituen kostuak.

De acuerdo con la Ley 2/2023, de la actividad física y deporte del País Vasco, los poderes públicos, en el ámbito de sus competencias, adoptarán una política dirigida a garantizar el derecho fundamental de todas las personas a la práctica deportiva de forma libre y voluntaria en cuanto que constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

La actividad física y el deporte son de gran ayuda en el proceso de aprendizaje y formación de las y los jóvenes. Toda persona que haga actividad física y deporte sabe lo que representan la disciplina y el trabajo diario, así como el cultivo de la responsabilidad de actuar en grupo. Además, por medio del deporte se adquieren hábitos de autocuidado.

La actividad física y el deporte son instrumentos muy adecuados para la integración social. Por medio de ellos se facilita la oportunidad de pertenecer a una comunidad las personas no nacidas aquí o a las personas migrantes y pueden proporcionar un excelente acceso a la integración a muchas personas llegadas a nuestro país.

La actividad física y el deporte son la base de nuestra calidad de vida y de nuestra salud, imprescindibles para conseguir beneficios en esos ámbitos. La sociedad actual y especialmente los avances tecnológicos con que cuenta tienen su vertiente perjudicial en la falta de actividad física y el sedentarismo.

Una sociedad activa, es decir, una sociedad que realiza actividad física, alejada del sedentarismo, resulta imprescindible para mantener nuestro nivel de bienestar. Ello redundará en una sociedad más feliz, productiva y saludable y, por supuesto, hará más sostenibles los costes que conlleva nuestro nivel de bienestar en el área sanitaria.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren zereginek eremu zabala hartzen dute eta hainbat konpromiso estrategikori lotuta daude. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloa eskumen partekatua izan arren, Eusko Jaurlaritzari dagozkion arloak anitz eta oso ezberdinak dira. 2024-2028 Legealdiari begira, Zuzendaritzak bere lehentasun, helburu eta ekinbideak lau ardatz nagusiren inguruan antolatu ditu. Honako hauek dira:

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren sektorea berpiztu, Euskadiko kirol-sistema ere etorkizuneko erronketarako egokituz.

Era berean, etorkizuneko erronketarako Euskadiko kirol-sistemaren antolaketa egokitu, egituratu eta hobetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko legeak, jarduera fisikoari eta kirolari buruzko legeak eta Dopinaren aurkako Legea aldatu ondoren. Horien arau-garapena izapidetzen ari gara.

2. Euskadi aktiboa sustatu. Euskal herritarren artean jarduera fisikoa eta bizi-ohitura osasuntsuak hedatzen jarraituko dugu, Euskadi Europako gizarte aktiboen artean kokatze aldera.

Europako herrialderik aurreratuenek gero eta barneratuago dute jarduera fisikoaren garrantzia. Atzean geratu dira ikuspegi ludikoa nabarmentzen zuten garaiak, eta egun gizarte mailako lehentasuntzat hartzen da haren sustapena. Euskadin hasiak gara kontzientzia hori barneratzen eta pauso sendoak eman ditugu norabide horretan. Pandemiak agerian utzi ditu jarduera fisiko ezak herritarren osasunean sortzen dituen ondorio larriak eta gordintasunez erakutsi digu sedentarismoak eragiten duena, batik bat urteen poderioz. Ardatz honi dagokionez, Urte honetan, jarduera fisikoaren sustapenaren arloan, 2/2023 Legeak, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena, ezarritakoari jarraituz, «Mugiment Ekintza Plana» martxan jartzea eta jarraipena egitea erronka nagusia dugu.

3. Euskal kirola berdintasunez. Kirol eremuan berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzen jarraitu nahi dugu, genero-berdintasunari, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta hizkuntza-berdintasunari erreparatuta.

Horretarako, hiru lerro horietan lan egingo dugu, emakumeen parte-hartzea eta ikusgarritasuna maila guztietan sustatuz, kirol inklusiboa eta egokitua babesteko neurriak garatuz eta jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako espazioetan euskararen presentzia eta erabilera indartzeko ekimenak bultzatuz.

4. Kirola Euskadiren ikur. Kirola eta kirol-jardunarekin lotutako balioak Euskadiren identifikazio-ezaugarria izango dira, gure herrian bertan eta Euskadi-Basque Country estrategiaren baitan.

Las funciones de la Dirección de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco abarcan un amplio ámbito y están vinculadas a diversos compromisos estratégicos. A pesar de la competencia compartida en materia de actividad física y deporte, las áreas que corresponden al Gobierno Vasco son diversas y muy diferentes. De cara a la Legislatura 2024-2028, la Dirección ha articulado sus prioridades, objetivos e iniciativas en torno a cuatro grandes ejes. Son los siguientes:

1. Reactivar el sector de la actividad física y el deporte, adaptando el sistema deportivo vasco a los retos del futuro.

Asimismo, con el fin de adecuar, estructurar y mejorar la organización del sistema deportivo de Euskadi para los retos de futuro, tras la aprobación de las Leyes sobre el acceso y ejercicio de las profesiones del deporte en el País Vasco; la de la actividad física y deporte y la modificación de la Ley Antidopaje. Estamos tramitando el desarrollo normativo de las mismas.

2. Promover una Euskadi activa. Vamos a continuar difundiendo la actividad física y los hábitos de vida saludables entre la ciudadanía vasca, situando a Euskadi entre las sociedades más activas de Europa.

Los países europeos más avanzados tienen cada vez más interiorizada la importancia de la actividad física. Atrás han quedado los tiempos en los que destacaban el enfoque lúdico y hoy se considera su promoción como una prioridad a nivel social. En Euskadi estamos empezando a interiorizar esa conciencia y hemos dado pasos firmes en esa dirección. La pandemia ha puesto de manifiesto las graves consecuencias que produce la inactividad física en la salud de la población, mostrándonos con crudeza lo que provoca el sedentarismo, sobre todo con el paso de los años. En relación con este eje se impulsarán la Agencia Vasca de Actividad física, en este año, en el ámbito de la promoción de la actividad física, siguiendo las directrices de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco, tenemos el reto principal de la puesta en marcha y seguimiento del Plan de Acción de Mugiment.

3. Deporte vasco en igualdad. Queremos seguir promoviendo la igualdad real y efectiva en el ámbito deportivo, atendiendo a la igualdad de género, a las personas con diversidad funcional y la igualdad lingüística.

Para ello, trabajaremos en estas tres líneas impulsando la participación y visibilización de las mujeres en todos los niveles, desarrollando medidas de apoyo al deporte inclusivo y adaptado e impulsando iniciativas para reforzar la presencia y el uso del euskera en los espacios relacionados con la actividad física y el deporte.

4. El deporte como símbolo de Euskadi. El deporte y los valores relacionados con la práctica deportiva serán la seña de identidad de Euskadi, en nuestro propio país y dentro de la estrategia Euskadi-Basque Country.

Kirola gure herriaren kultura, izaera eta nortasunean erabat errotuta dago. Euskadi kirolari handien sorteria izan da eta da, eta berauek gure enbaxadorerik onenak izan dira askotan. Kirolaren baliorik behinenak hedatu dituzte gurean, eta gure herria nazioartekotzean lagundu dute. Euskadi bere goi-mailako kirolariak babestu dituen herria izan da, eta erreferente izan nahi dugu horretan. Baina bide horri ez diogu edozelan eutsiko. Balio batzuei lotuta eutsiko diogu. Kirol legez. Fair-play-ean eta dopinaren aurrean 0 tolerantzia ere Euskadiren ikur izan daitezkeelako.

